Prest! DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

200 zenbakia
2019 **martxoa**

Prest! 200

BERBETAN: ZER DA PREST!? GOGOETAK: EUSKARAZKO TOKIKO HEDABIDEAK

ELKARRIZKETA: OLATZ ARREGI ETA JONE GARTZIA ARGAZKIAK: GAURKOAK ETA ATZOKOAK

TOKIKOM

194-195-196-197-198-199-

Gure babesleak

Bizkaia foru aldundia diputación foral

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Bilbao

berbaizu euskaraelkartea

S.D. DEUSTO

BIHOTZ ALAI HEZKIDETZA DENTZIA TALDEA

intxixu ikastola

txantxikul .Deustuko Aisialdi Taldea.

erraldoien ondalan konparsa

ARBAYUN TALDEA DEUSTU

ELORRI BERTSO ESKOLA

DEUSTUKO JAI BATZORDEA

bekoerri kultur elkartea

zirikatzen!

eaj pnv deustu

Etxerat

EGUNSENTIA ESKAUT TALDEA 1982TIK

PARE HAUTSI BARRA KATEAK

DEUSTUKO GAZTE ASAMBLADA

MIKELDI DANTZA TALDEA

LABORAL kutxa

ernai Deustua

DEFENDA DEZAGUN!

Babestu Prest! urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

Izen-abizenak .....
Helbidea .....
Telefonoa .....
E-posta .....
Kontu zenbakia (Iban) .....

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

200 zenbakia
2019ko martxoa

aurkibidea

Mikel Aiartzaguena Agirrebeitia eta Nerea Etxaniz Osa **Iritzia** 4

Zer da Prest! zuretzat?
Hainbat lagun gonbidatu ditugu PREST! aldizkariaren inguruan hausnartzera 5

Olatz Arregi eta Jone Gartzia **Elkarrizketa** 9

Euskarazko tokiko hedabideak
Eta beste hainbeste lagun tokiko euskarazko hedabideen inguruan hasunartzera 12

Zer eman digu PREST!-ek? **Berbaizu** 20

Deustu ala Deustua? **Euskaltzaindia** 21

ARGAZKI GALERIA PREST! aldizkariaren lagunekin bat 24

ARGAZKI ZAHARRAK Zenbat gauza aldatu diren 2001etik 28

KULTUR TXOTX Laura Feijo eta Elorri bertso-eskolako lagunak 30

Prest!

Argitaratzailea:
BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
Deustu 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com
uriola.eus
@uriolaeus
facebook.com/uriolapuntueus

Zuzendaria: Jone Gartzia Gerra
Erredakzioa: Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Nerea Cubillo, Uxue Gutierrez, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Mikel Aiartzaguena, Nerea Etxaniz, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Maialen Gago, Jon Intxaurraga
Kolaboratzaileak: Elorri Bertso-Eskola, Deusto ikastetxea, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea
Argazkiak: Iñigo Azkona Bikandi
Publizitatea: Jone Gartzia Gerra
Diseinua: BO5T
Maketazioa: Amaia Gil Basterretxea
Inprimategia: Antza
Ale kopurua: 2.800
Lege Gordailua: BI-571-01
ISSN: 1577 - 9017

Nerea Etxaniz Osa
Petriletik

Ready?

Sare-zale amorratuena ere konturatu da honezkero: lokatz mediatikoan leporaino sartuta, irribarre multimediak eta purrustada histerikoak muxu-truk, atergabe, gainezka egitekotan gara. Dena irensteko prest, globalizatuok noraezean gabiltza. Betekada itzela. Hizkuntza? Gutxienekoa da hori! Auzo-lotsak eta eus.foriak bizi gaitu, horren erakusle dira kosmo-paleto askoren mezu eta lelo akonplexatuak, dena *center* dena *now* dena *exhibition*: *change the change*, aldatu dena ezer alda ez dadin.

Bizitza, baina, beste nonbait dago.

Agian, erretiratu horren begiratu bizian egon liteke, gaixoaren esker onean edota lagun arteko mozkorraldi zoroan, zergatik ez. Etorkinaren irribarre erraldoian bizi-indarra, bizipoza edozein txikikeriatan: beldurrak airean jarri zintuen istorio hura, auzo osoa beharrean jarri zuen hondamendia, zuretzat nahiko zenukeen mozorrorik sinesgarriena... eta, jakina, hori guztia ez da pantaila batean kabitzen.

Haize onik ez omen dago nora doan ez dakienarentzat, baina eutsi eutsiko diogu baldin eta denon artean euskarri onak sortzeko gai bagara. Deustualdean, esaterako, bada herri-doinuan dabilenik komunikazioaren dantzan, apal eta ganoraz, behetik gora, ausart. Erronka jo eta txikira jokatu, hortxe apustua. Bertatik mundura, konplexu eta muga barik.

Eskertzekoak ditugu dagoeneko 18 urte eta 200 zenbaki, eta beste horrenbeste nahiko genituzke, gutxienez. Hemen, behintzat, ridirik ez "*Are you ready*?" showmanen gisa oihukatuz, ez... Zorionez, hortxe dugu PREST!

Mikel Aiartzaguena Agirrebeitia
Gazte mugimenduko kidea

Irudiak

Idaztea, sortzearen eta suntsitzearen arteko dialektika gainditzen zuena zela esan genuen, bien arteko lehia absurdora eramaten zuena. "Idaztea dela diote, autoerreparatzea", esaten du Izarok bere abestian (esaten nuen nik, aurreko nire iritzia ezin zela nirea bakarrik izan).

"Argazki batek mila hitzek baino gehiago balio du", dio esaera zaharrak. Iritzi hauetako bakoitzean 1.000 karakteretako espazioa dudala gogoratzeak argazkien inguruan zer pentsatua eman dit; argazkien baino, irudien inguruan. Irudiak gogoratzen baititugu gogoan, momentu bakoitzak gure burmuinaren atalen batean grabatuta utziko duen irudia, denborarekin moldatuko duguna, idealizatu, magnifikatu edo ahanzturara eramanez.

Argazkiak omen dira momentu hauek gogora ekartzeko erarik eraginkorrena, etorkizunean jada lehenaldi dena presente edukitzeko helburua dugun bakoitzean. Arrazoia ematekotan nago, bai, eta are gehiago mahai gainean dudan paraxodarekin. PREST!-en 200. zenbakirako zerbait berezia idazteko eskatu zidaten eta hurrengoa etorri zitzaidan burura: "Inork ahaztuko ez duen zerbait idatzi behar duzu". Baina ez da hau kontua ez, irudi bat sortzea da kontua. Ez dira 200 argazki behar, ez 200 portada, ez 200 bertso, ez 200 elkarrizketatu, ez 200 iritzi zutabe, ez... irudi bakar bat behar da, bakoitzaren burmuin barruan, baina baita edozein etxetako kortxotan eskegita, 200 aldiz egindakoa gogora ekarriko diguna, bihotza estutuko diguna, egiten duguna zergatik egiten dugun gogoraraziko diguna.

200 PREST!, irudi bakarra.

Zaloa Ipiña

“HORI DA UNIBERTSALA IZATEA”

“Bilbotarra izanda nolatan zaude euskarari buruzko proiektu artistiko bat jorratzen?”. “Bai, deustuarra naiz eta guraso erdaldunak ditut, baina nire hizkuntza propioa euskara da”. Azkenaldi honetan, hizkuntza gutxituei buruzko proiektu plastikoa burutzen ari naizenetik, askotan izan dut elkarrizketa hau.

Pako Aristik dioen bezala, oraindik ere, arrotz sentitzen gara gure etxean; edo hobeto esanda, askotan, arrotz sentiarazten gaituzte. Baina badaude ere, gure bertakotasuna itzultzen digutenak, eta hori da, hain zuzen ere, PREST! aldizkaria niretzat.

Euskaraz sor dezakegu, euskaraz haz gaitezke, eta hauxe dugu eredu bikaina. Izan ere, hedabide handien jarraibideetatik erabat aldenduta, herriko gizartea, ekintzak, berriak eta iritziak plazaratzen ditu. Hori da unibertsala izatea, uniformetasunetik aldentzea eta tokian tokikoari hormarik ez jartzea.

Zorionak PREST!, bizitza luze eta zoragarria duzu oraindik ere!

Mikel Noval

18 URTE ETA GERO

Orain dela 18 urte jarri zen martxan PREST! aldizkaria. 200. zenbaki hau berezia izango da, ospatzeko aitzakia. Askotan egiten dugun lana goraipatzeak lotsa ematen digu, baina PREST! egiten dutenek ez dute lotsarik izan behar. Ospatu lan ona!

Lehen zenbakirako elkarrizketa bat egin zidaten. Gai nagusia, globalizazio neoliberala eta bere aurrean zer egin. Ez nuen nik hau esan, baina tokiko euskarazko komunikabide bat erantzun horren parte inportantea da. Komunikabide nagusietan informazio iturriak (eta gaiak, eta enfokea) globalizatuta daude. Beraz, askotan gure auzoko dinamika interesgarriak ikusezinak dira. PREST! bezalako aldizkari batek errealitate hori agerian uzten digu.

Gure eskubideak lortzeko edo defendatzeko borrokatu behar dugu. Botere ekonomiko eta politikoen nahien kontrakorrontean egin behar dugu hori, era kolektiboan. Hori da, ere, erantzunaren parte bat. Gure indarra kolektiboa da. PREST!-ek laguntzen du gure auzoa saretzen, kolektiboa eraikitzen. Kolektibitate hau euskaraz eraikitzen laguntzen duen aldizkaria da PREST!, beharrezkoa.

Isabel Isazelaia

BEGIRADA PROPIOA ERAIKITZEN LAGUNTZEN DIGU

Zorionak bihotz-bihotzez PREST! 200 zenbakira iristeko ahaleginetan ibili den talde osoari. Izan ere, Deustuko euskaldunon unibertsoa osatzen dugunontzat, bertoko komunitatea eratzeko nortasun komun bat sortzen laguntzen digun tresna aparta da PREST!. Auzotar euskaldunon taupadak jaso, barreiatu eta elikatzen laguntzen digu hilero-hileroko aleak.

Hezkuntza, aisialdia, familia transmisioa, kultur erreferentziak… eta nola ez, komunikabideak, ezinbesteko ditugu euskaldun gisa, munduarekiko gure begirada propioa eraikitzen laguntzen digutelako. Horiek gabe, gutxiago gara, eta horien eraikuntzan eta garapenean PREST! ale bat gehiago da, ondo zaindu beharrekoa.

Ezin ahaztu euskalduntzeko hautua egin dutenak eta prozesuan daudenak. Zer eskaintza hobea egin diezaiekegu hauei ez bada euskaldunon mundu sinboliko propioa erakustea, erreferentzia sare oso bat, desberdina, gurea, euskararen mundutik abiatua izango dena baino? Horretan ere, tokiko aldizkariek funtsezko egitekoa betetzen dute eta hor ere badago PREST!.

Beraz, animo eta gogor egin berriki sartu zareten errelebo berriari! Datozen hurrengo 200 zenbakiak aurrekoak bezain oparoak izan daitezela!

Izan ausart!

Ramon Barea eta Pabellon 6

ZORIONAK PREST! ALDIZKARIA

Beste komunikabide batzuek ikusten eta aintzat hartzen ez duten horri buruz hitz egiten duelako gustatzen zaigu PREST!. Pabellon 6en zuekin orrialdeak ez ezik, auzoa bera ere partekatzen dugu. Urte askoan, PREST! aldizkaria!

MARTXOAREN
29tik
APIRILAREN
28ra
www.pabellon6.org

Olatz Arregi eta Jone Gartzia

"PREST! DESAGERTUKO BALITZ BERE FALTA NABARITUKO GENUKE"

Duela hamazortzi urte PREST! abian jarri zuen lantaldean aritu zen Olatz Arregi. Jone Gartzia, aldiz, aldizkariko zuzendaria da gaur egun. Belaunaldi bi, ikuspegi bi, proiektu bakarra. Biekin egon gara berbetan, Deustualdeko herri aldizkariaren iraganaz, orainaldiaz eta etorkizunaz.

Testua: Hektor Ortega

Olatz, zu hasierako lantaldean egon zinen, PREST!-en jaiotza prestatu zuena. Zer datorkizu burura hura gogoratzean?

Olatz: Batez ere, ilusioa eta gogo handia geneukala horrelako proiektu bat martxan jartzeko. Hasierako lantaldekoontzat *Hitzartu* izan zen aurrekaria eta abiapuntua. Egundoko ilusioa, gogoa eta borondatea zegoen Deustualde osoari euskarazko hedabide bat eskaintzeko. Sasoi hartan holakoak sortzen ari ziren beste herri batzuetan eta horixe zen, hain justu, deustuar euskaldunei eskaini nahi geniena.

Jone, zu gazteagoa zara. Zein da PREST!-ekin lotuta daukazun oroitzapenik zaharrena?

Jone: Hasierako PREST!-etan lehiaketa egiten zen, azaleko argazkiko lekua zein zen asmatzeko. Nik beti hartzen nuen parte, aitarekin, eta etxeko lehenengo entziklope-

dia horrela lortu genuen, kar kar. Ikastolan, gelako kortxoan, harpidedun izateko papera eskegita edukitzen genuen. Detaile horiek dauzkat gogoan, sasoi hartan, adinagatik, oraindik ez nuelako gehiegi irakurtzen.

Olatz, *Hitzartu* aldizkaria aurrekari gisa aipatu duzu. Zer lortu nahi zenuten PREST! sortzean?

O: Alde batetik, hutsunea ikusten genuen Deustuko informazioa jasotzeko orduan. Ez zegoen horretarako biderik, are gutxiago euskaraz. Hutsune hura estali nahi genuen. Horrez gain, euskaldunen komunitatea trinkotu eta euskalgintzako eragileekin eta merkatariekin sarea osatu nahi genuen. Herri nortasuna ere indartu nahi genuen, Deustualde osoa barruan bilduta: Deustu, Ibarrekolanda, San Ignazio, Arangoiti...

Jone, hazi ahala aldizkaria ikusteko modua aldatuko zitzaizun, ezta?

J: Denborarekin, niretzat eta nire belaunaldiarentzat, edo behintzat nire inguruko jendearentzat, erreferente bihurtu da. PREST! etxera heltzen denean momentu berezia da, berehala ateratzen dugu plastikotik eta begiratzen dugu zer gai dakarren... Orain, barrutik bizi dudala, igarri egiten dut jendearentzat inportantea dela PREST!-en agertzea eta PREST! irakurtzea. Azken finean, gure inguruko gaiak ekartzen dituelako.

Eredu zehatza hartu zenuten, Olatz: herri aldizkaria. Alegia, egitura profesional txikia eta borondatezko lana egiten duen taldea. Apustu ausarta eta denboran luze irauteko gaitza, ezta?

O: Bai. *Hitzartu* erabat boluntarioa izan zen eta hiru urtez iraun zuen. Hor asko ikasi genuen. Oinarri txiki horrekin PREST! sortzeko bidean jarri ginen. Une hartan giltzarria zen jauzi profesionala ematea, alegia, pertsona liberatuak behar genituen, borondatezko lanarekin batera, proiektua aurrera ateratzeko. Ez zen erraza, baliabide gutxi genuelako, baina aurrera atera zen, batez ere borondatezko lanari esker. Erdi-liberatuta zuzendaria eta komertziala zeuden, baina eurek ere lan piloa egin zuten borondatezkoa.

Eta zu, Jone, zelan hurbildu zinen lantaldera?

J: Ikus-entzunezkoak karrera ikasten nengoela, hirugarren mailan praktikak egin nituen *Uriola.eus*-en. Amaitzean, erabaki nuen PREST!-eko lantaldera batzea. Baneukan PREST!-ekiko harremana, irakurle moduan, eta orduan urrats bat ematea erabaki nuen. Oso polita da, gertuko gaiak jorratzen dituzu eta lantaldean parte hartzea esperientzia aberasgarria da.

PREST!-ek 200. zenbakia kaleratu du. Zer lortu du ibilbide luze honetan?

O: Nik uste dut bide oparoa egin duela. Deustuarren artean oso ezaguna da PREST!. Jendeak komentatu egiten du. Inor ateratzen denean aldizkarian gero harritu egiten da jende askok esaten diolako. Oihartzuna dauka, eta tiradan ere ikusten da. Lehenengo zenbakitik mila ale baino gutxiago banatu genituen eta orain 2.800 dira. Hor ikusten da euskaldunen sarea zabaldu dela, jendeak gogotsu itxaroten du aldizkaria eta hortaz, hasieran jarri genituen helburuak, agian osorik ez, baina hein handi batean, bete egin dira: euskaldunen komunitatea sendotu egin da, Deusturen herri nortasuna islatu eta indartu da eta auzoen arteko harremanak eta ezagutza handitu dira.

Zuk, Jone, zer nolako PREST! aurkitu duzu lantaldera batu zarenean?

J: Topatu dudan lantaldea ez da oso handia agian, baina lan egiteko gogo itzela dauka. Aldizkariak 200 zenbaki kaleratu baditu horrek esan nahi du jendea dagoela atzean. Uste dut jendeak pentsatu dezakeela lan erraza dela aldizkaria egitea, baina konturatu naiz atzean dagoen lana handia dela eta lantaldearen eta inguruan dagoen jendearen ekarpena oso inportantea dela hori aurrera ateratzeko.

Zailtasunak aipatuta, PREST!-ek oztopo handiak gainditu ditu: krisi ekonomikoa, diru-

laguntzen murrizketak, euskararen aurkako bazterketa...

O: Bai, hala da, baina ez da batere lan erraza izan. Ematen duena baino handiagoak dira zailtasunak eta inportantea da PREST!-eko irakurleak horretaz ohartzea. Eragozpenak oso handiak diren heinean, ahaleginak ere neurrikoa izan behar du eta, hala ere, beti egoten da ezpata bat bezala gure buruen gainean. PREST!-en historian kinka larriak izan dira eta, segurutik, izango dira aurrerantzean ere.

Izan ere, mehatxuak gainditu arren, ez dira desagertu. Bere horretan dira hasierako guztiak eta gainera, hedabideak kontsumitzeko moduak aldatzen ari dira, jendartea indibidualistagoa da... Gero eta gaitzagoa da horrelako proiektu herrikoiak aurrera ateratzea.

J: Zailtasunen artean beti izaten dira oso garrantzitsuak arlo ekonomikoari lotutakoak, jakina. Baina, era berean, garrantzitsua da jendea proiektuan inplikatzea eta etxean PREST! pozik jasotzen dutenek ikus dezatela irakurriz ez ezik beste bide batzuetatik ere lagundu dezaketela. Bultzada ekonomikoa ezinbestekoa da, hori argi dago, baina PREST!-ek zentzua badauka da herri bat daukalako atzean. Pertsona bakar baten lanaren emaitza izango balitz, ez luke zentzu handirik izango. Agian orain papera ez da lehen beste irakurtzen, baina PREST! hilabetekaria eta hurbilekoa izanik, jendeak baloratzen du etxean jasotzea. Interneten bakarrik balego, gutxiago irakurriko litzateke. Etxera heltzeak gertutasuna eta balio erantsia ematen dio PREST!-i.

Zer izango da PREST! etorkizunean? Zelan imajinatzen duzue?

Olatz: Ikusten dut belaunaldi aldaketa gertatu dela eta hori oso inportantea da. Lekukoa nork hartu egon da, nahiz eta oraindik lantaldean hasierako taldeko kide batzuk egon. Horrek itxaropena pizten du. Behin egin badugu, etorkizunean ere egin ahal izango dugu.

Jone: Niri bitxia egiten zait lantaldean hain profil ezberdinak egotea. Alde batetik 18 urte kolaboratzen daramatzatenak, eta bestetik, oso jende gaztea, sartu berria eta aktiboa. Etorkizunekoa zelan izango den ezin dugu jakin, baina etorkizuna izan badu. *Uriola* arlo digitala lantzeko tresna da. Erronka berriak agertuko dira eta ikusiko dugu zelan egingo diegun aurre. Argi dago gaur egun horrelako proiektu bat sortzea askoz zailagoa dela duela 18 urte baino. Daukagunari eutsi behar diogu, berritu eta hobetu. PREST! desagertuko balitz ez dakit zerk bete ahalko lukeen bere hutsunea, baina seguru nago jende gehienak bere falta nabarituko lukeela.

Goizalde Landabaso
kazetaria

ARTXIPELAGOA

Kontraesanak sortzen dizkidate herri aldizkariek. Batetik, iruditzen zait izaera nazionala duten hedabideak heltzen ez diren lekuetara ailegatzen direla eta, alde horretatik, hedabide nagusiagoen hutsuneak bete litzaketela. Bestetik, ordea, XX. mendean gelditu direla sentitzen dut. Neurri batean ulergarria da, jende nagusiagoa ez dago sarean eta aldizkari honen hartzaileak dira. Bestean, aldiz, gazteak (hots, etorkizuna) sarean daude eta hortxe da, izan, etorkizuna.

Herri aldizkariak hedabide nagusiagoen hezurduraren itzalari bizkar eman ezinean ikusten ditut, maiz. Izan ere, iruditzen zait eremu zabalagora iristen diren hedabideen kopia mimetikoak direla. Ez dute irudikatu, ez dute arriskatu, ez dute (salbuespenak salbu) berritasunik ekarri azken urteotan. Gainera, beti begitandu zait uharte isolatu bezala aritzen direla, zelanbaiteko banaketari eusten. Atomizazio hori irreala iruditzen zait. Bada, nor bizi da soilik bere herrian sartuta? Nork ez du interakziorik alboko herriekin, auzoekin?

Artxipelagoaren ideia gustatzen zait. Norbere nortasunari eutsiz batasun bat; sarea sortzea, irlek bat egiten duten eremua gauzatzea. Zer esan nahi du horrek, herri aldizkari batzuk desagertu behar direla eta eskualdeka sortu behar direla biziraupena ahalbidetzeko? Bada beharbada bai. Alde horretatik Bilboko *Uriola*-k egindako lana

txalogarria iruditzen zait. Baliteke diruaren erabilera ekonomizatzailea izatea hautu horren atzean, baina, edozelan ere, asmatu dutela esango nuke. Sareak sortzeko bideak urratzen ditu eta publiko berriak eskuratzeko ariketa egiten du, alegia, gazteak erakartzeko.

Kohesiorako balio beharko lukete herri aldizkariek, nire uste laburrean, bestearekin bat egiteko, bestearengana heltzeko. Hala ere, ez nuke ikusmolde ezkorregia eman nahi. Badakit aldizkariotako lana, neurri handi batean, boluntario egiten dela. Eta agian hori ere bada dugun arazoetako bat: boluntarioegi gabiltzala.

Uste dut existitzen ez den etorkizuna dugula bidea urratzeko, lan egiteko, eta gure lekua sendotzeko.

Galder Unzalu Etxabe
BLB kooperatibako kidea

ETA 10 URTE BARRU, NON?

Adin nagusiko bihurtu da PREST! eta nerabe-tzen doa *Uriola*, *Berton*-ek utzi gintuen 20 urteko ibilbide oparoa eginda, *Zorrotz Morrotz*-ek Zorrotza euskalduntzen dihardu hilero-hilero eta BLB kooperatibako kide ez den arren, Bilboko uhinak euskalduntzen dabil Bilbo Hiria Irratia, berriki Eusko Jaurlaritzak egindako FM irrati lizentzien esleipenetik kanpo geratu dena.

Hori da Bilbo euskaldunaren tokiko panorama; eta bada zer edo zer, baina ez da nahikoa. Beharrezkoak ditugun heinean, ez dira behar duguna asetzeko beste. Guzti hauek eta etorriko direnak gorpuztu eta koskortuta, auzoen hurbiltasunetik hiriaren erdigune sinbolikoetara heltzen eta haietan eragiten imajinatzen dut etorkizuna: euskarak gaur egun irabazita dituen eremu barreiatuetatik irabazteko dituen arrotz horietara zabaldua, haietan ezarria eta mezuak eta esanahiak hedatuz eta informazioa zein agenda ekoiztuz. Bilboren eta bere eragin linguistiko-komunikatibopekoa den ingurune osoan (Bilboaldea huts-hutsean baino, gutxienez, Bizkaia osoa) erreferentzia bihurtuko den komunikazio taldea ikusten dut lanean hemendik hamar urtera.

Esana du Joseba Sarrionandiak berriki: “Euskaldunek, urgentziarekin nire ustez, komunikazio esparru anitz bat osatzera bideratu beharko genituzke energia guztiak”. Atrebentzia ez bada, esango nuke Azkuek 1897an *Euskalzale* aldizkaria lehenengo eta gero *Ibaizabal* sortzerakoan, 1937an gerra hitsean Abeletxe, Zubikarai eta Mendi Lautak *Egguna* argitaratzerakoan, iluntasunaren erdian, 50. hamarkadatik aurrera, *Anaitasuna* eta *Agur* sortu zituztenean zein 90. hamarkadan PREST!-en aurrekari izan zen *Hitzartu*-ri bizia ematerakoan, hori bera zutela buruan: komunikazio esparru komun euskaldunik gabe ez dagoela ez herririk ez hizkuntzari etorkizunik ematerik; hori dela beste guztia zedarritzen duen oinarria: ikuspegi propiotik sortutako informazioa, eztabaida, hausnarketa eta kritikarako tarte komunikatibo anitz eta konpartiturik gabe ez dagoela sakon eraikitzerik.

Guzti hauek egin daitezke komunikabide euskaldunik gabe? Bai. Orain arte prekaritate horretan egin baitu aurrera (eta batzuetan atzera) euskarak Bilbon, edo komunikabiderik gabe, edo prekaritate eta bazterretik. Afera da ea euskararen berreskurapenari abiadura, intentsitatea eta sendotasuna eman nahi diogun edo nahikoa dugun gaur egun arteko erritmo eta eraginarekin.

Galderetako bat hau da, beraz: euskarazko komunikabideak ari al dira hiriaren paisaia eta erreferentzialitatean pisua irabazten, orekan prekarioan eusten diote euren eragin eremuari edo erlatiboki galtzen ari gara? Hots, hiriaren ‘ahotsean’ badugu indarrik? Sikiera ahotsetako bat izatera heltzen gara? Erantzunaren arabera uste dut alorrean ari garen eragileok, Udalak eta euskaltzale orok gaiari kemenez heltzeko momentua dela.

Iñaki Zabaleta Urkiola
Europako Hizkuntza Gutxituetako Hedabideak eta Kazetaritza (HEKA) proiektuko zuzendaria, UPV-EHU

HIZKUNTZA GUTXITUETAKO HEDABIDE LOKALAK: FUNTSEZKOAK

Hizkuntza gutxituetako hedabideak funtsezko baliabideak dira hizkuntza txiki eta txikiagotuak indartzeko, hizkuntza komunitateak trinkotzeko, horien baitan esfera publiko propioak garatzeko eta, azken finean, identitatea garatzeko.

Rol berezi horiek gehitu behar zaizkie hizkuntza gutxituetako hedabideei, kazetaritzan estandar diren beste funtzioez gain; alegia, informazio, korrelazio, transmisio eta entretenigarritasunaz gain.

Europako hizkuntza gutxituen hedabide sistemak, gaur egun, hiru multzotan jar litezke. Goi mailan, katalanezko hedabide sistema dago (757 hedabide elebakar), oso garapen handiarekin. Bigarren, hiru hedabide sistema aurkitzen dira (euskara, galesera eta galegoa), bakoitzak ehuna hedabide elebakar inguru dituela. Azkenik, beste sei hizkuntza komunitate daude (irlandera, bretoiera, frisiera, sámiera, korsikera eta eskoziar-gaelikozkoa) zeintzuek 12 hedabide elebakar edo gutxiago dituzten, eta oro har, garapen mugatua. Komunikabide sistema horiek aztertzeko hainbat aldagai erabil daitezke, eta horien artean oso garrantzisua da hedadurarena, alegia, ea zer nolako indar eta pisua duten tokiko eta zabalkunde orokorreko hedabideek.

UPV-EHUko Heka ikerketa taldeak aztertu duenez, hizkuntza gutxituetako hedabide sistema garatuenek hedabide lokal kopuru handia dute. Zehazkiago, katalanez, euskaraz, galeseraz eta galizierazko hedabideen bi heren tokiko komunikabideak dira. Horrek adierazten du hizkuntza komunitateak barne indarra duela, gizarte mailako jarduera aktiboa dagoela eta herri-ekimena estrategia eraikitzailea dela. Aldiz, beste sei hizkuntza komunitatetan (irlandera, bretoiera, frisiera, sámiera, korsikera eta eskoziar-gaelikoera) ia ez dago tokiko hedabiderik. Nahiko sintoma kezkagarria da, herri mailako ekimenaren ahulezia adierazten baitu honek.

Bolumen ekonomikoari dagokionez, Europako hamar hizkuntza gutxituetako hedabideek mila miloitik gorako diru-sarrera dute urtean. Horretatik, zazpirehun milioi euro katalanezko hedabideek hartzen dute; euskarazko, galeserazko eta galizierazko hedabideek ehuna milioi inguru; eta beste sei komunitateek, hogeina milioi euro inguru.

Diru gehiena, hamar eurotatik bederatzi, publikoa da, eta hedabideen zabalkundeari dagokionez, tokiko hedabideek ehuneko bost bakarrik berenagatzen dute. Nahiko zifra txikia beraien garrantzia kontuan hartuta.

Beraz, tokiko komunikabideak oso garrantzitsuak dira hizkuntza gutxituen bizigarritasunean, baina proportzioan, oraindik pisu ekonomiko txikia dute.

Irati Sienra, Amaia Mintegi eta Maitane Muñoz
Deustuko Gazte Koordinakundeko kide ohiak

ZAZPI URTE PASATU DIRA JADA

Zazpi urte pasatu dira PREST!-eko kideek Deustun antolatutako Gazte Topaketen harira elkarrizketa egin zigutenetik. Geroztik, gure bizitzak aldatuz joan dira. Etxebizitza duin baten bila, beste auzo batzuetara mugitu behar izan gara, alokairuen prezioen gorakadak behartuta. Baina PREST!-ek hor jarraitzen du, gure inguru berriaren eta Deusturen arteko lotura mantentzen lagunduz. Gertuko kontuez informatzen gaitu, eta, aldi berean, gazte problematikaren eta gazte mugimenduaren isla da, honen pausoak zabalduz Deustu osora. PREST!-ek egingo ez balu, nork emango luke gure berri?

Pare Deustuko talde feministaren, Deustuko Gazte Lokalaren zein beste hainbat eragileren inguruko komunikabidea dugu; eta eskerrak, espazio bakarra baitugu hau bera. Badakigu harpide anitzak dituela PREST!-ek baina, berdin-berdin, hor da hilabetekaria, etxez etxe doana, autozentsurarik gabekoa.

Urte luze hauetan, pozgarria da gure etxeetan aldizkaria jasotzea, aurpegi ezagunak ikusteko, egile ezberdinen artikuluak irakurtzeko eta, azken finean, auzo eta inguruaren berri izateko.

Zorionak urte luze hauetan eskainitako guztiagatik, eta mila esker lantaldeko kide guztiei!

Imanol Agirre
kultur sustatzailea

PREST DAGO PREST!

Prest dago. Prest gaude. PREST! dugu komunitate honen lokarria. Deustutik sortu zinelako maite zaitu Deustukoak. Gure errepublikaren erdia euskalduna da, edo ia euskalduna, baina elkar ezagutu barik bizi gara. Horregatik ezinbestekoa da lokailua, eta ispilua. Prest dago PREST!: ikusgarri bihurtzen gaituena, bizirik gaudela aldarrikatzen duena; etorkizuna idazten duena.

Euskaraz bizi nahi dugu eta paperean eta sarean elkarrekin egingo dugu topo. Komunikabide barik galduak gara. Komunikabideak ez dira salbazioa, baina bide egiten du. Bidean elkartuko gara. Ibili-ibilian geroari begira urratsak ematen jarraitu nahi dugu. Deustuk behar zaitu PREST!, ez dago atsedenlekurik.

Leire Cañada
deustuarra

EUSKALDUNON ALTXORRA

PREST! aldizkaria, batzuentzat postontzian hilero jasotzen duten aldizkaria besterik ez da; beste batzuentzat, euskara zabaltzeko eta euskaraz komunikatzeko hedabidea. Askorentzat, ordea, euskaldunon altxorra da PREST!.

Euskara eta herria oinarri dituen aldizkaria da PREST!. Gure herriaren berri ematen digu eta gure auzokideen ibilbidea kontatzen digu zenbaki bakoitzean zintzo-zintzo. Gure herria hobeto ezagutzeko aukera paregabea eskaintzen digu, eta gainera gure hizkuntzan, euskaraz: proiektu berriak zein zaharrak, aukera anitzak, munduaren berri, gure historia, gure herrian topatu ditzakegun hainbat txoko eta bitxikeria…

Eskerrik asko PREST! posible egiten duzuen guztioi eta zorionak!

Datorren hilabetera arte!

Txema Luzuriaga
argazki bildumagilea

BILDU, SAILKATU, DIGITALIZATU ETA DENEN ZERBITZURA JARRI

2001. urteko martxoa zen, Deustualdean aldizkari berri bat jaio zenean. *Hitzartu* aldizkariari lekukoa hartuta, euskal kultura sustatu eta zentzu guztietan Deusturen bizitza indartzea asmo zuen.

Hitzartu-rekin egin nuen bezala, PREST! izeneko aldizkari berrian ere parte hartzea erabaki nuen, hala eskatu zidatenean.

Pozik hartu nuen erronka berria, izan ere, nire argazki-artxiboa herriarekin partekatzea ahalbidetzen baitzidan.

Geroztik, hilero-hilero Deustualdearen historia irudi bitartez kontatzen dut, Deustu bizirik zegoen herria zela erakusteko, eta ez tomatez beteriko zelaigune bat, askok uste duten bezala.

Oroitzea berriz bizitzea dela diote, eta jakitun naiz argazkiek memoria berpizteko duten indarraz.

Herri honen memoria mantentzeaz gain, badut beste xede bat, Deustu eta bere elizatearen historia gazteengana hurbiltzea, hain zuzen. Asmo hau PREST! aldizkariari esker betetzen dut.

Urte hauetan Deustualdearen historiaren hainbat pasarte errepasatu ditugu argazkien bitartez. Esaterako, Deustuko jaiena, Bilbo Handian izen handiko jaiak, urteko lehenak zirelako. Deustuko jaiak bereziak izaten ziren, garizuma betean bildotsa jan zitekeelako. Hori eta oparoa izaten zen txakolina ziren jaien pizgarrietako batzuk, eta hainbat argazkitan ikusi dugun bezala, jende andana erakartzen zuten Deustura.

Beste hainbat kontu ere aztertu ditugu: Gerra Zibila, Deustuko Zubia (1932an eraikitzen hasi eta tropa nazionalei bidea mozteko 1939an eraitsia), Deustuko kanala (1950ean hasi eta 1964an amaitu zutena, Deustu bitan zatituz), bertako baserri eta baserritarrak, txakolina, esne saltzaileak, euskal kulturaren garapena…

Bide honetan Deustualdearen 3.500 irudi inguruko artxiboa osatzen joan naiz, deustuar guztien ekarpenei esker eta hainbat artxibo publiko eta pribatuetan lortutako irudiei esker. Hauek denak digitalizatu eta behar bezala sailkatu ditut, Deusturen zerbitzura dagoen datu base handi batean gordetzeko. Dokumentu zaharrenak 1729ko marrazki bat eta 1864ko argazki bat dira. Artxiboko irudi asko lau argazki-liburutan argitaratu ditut, beste hainbat PREST! aldizkariko *Irudiak berbetan* atalean.

PREST! aldizkariaren lehenengo zenbakian Deustuko elizatearen 1922ko irudi panoramikoa jaso genuen; azken zenbakiotan duela mende erdiko irudiak biltzen ari gara. Irudiotan 8.000 biztanle izatetik 50.000 herritar

baino gehiago izatera igaro zen herriaren bizitza ezagutu dugu. Garaiotan bi gune handik osatzen zuten Deustu, Goiherri eta Bekoherri; gaur egun hainbat auzotan banatuta dago: Arangoiti, Deustu, Erribera, Ibarrekolanda, San Ignazio eta Elorrieta.

PREST! aldizkariaren 200 zenbaki hauetan (bide batez, zorionak!, oraindik ez baitut esan), 200 irudi publikatu ditugu. Horien artean 11 bereziki estimatzen ditut, Deustuko emakumeak, *Ez, ezetz da* lelopean 2015eko irailean argitaratzen hasi ginenak. Horiei esker, gure historian zehar Deustuko emakumeen izandako hainbat alderdi ikusi genituen.

Deustuko elizatearen eta Deustu herriaren 200 irudi dira, PREST! aldizkarian soilik argitaratu ditudanak, eta aurrez aipatutako 3.500 irudiko artxiboaren parte direnak. Artxibo honek aldizkariaren zerbitzuan egoten jarraituko du, bertan argitaratu daitezen.

Bide batez, ez duzue uste interesgarria izango litzatekeela 200 irudi hauekin liburu bat argitaratzea? Aldizkariari eta Berbaizu elkartearen proiektuari eskerrak emateko balioko luke.

Eskerrik asko denoi!

Denoi!

ZER EMAN DIGU PREST-EK?

Lehengoan, Bilbotik gure auzoetarantz busean gentozela, mende erdia atzean utzitako bikote bat suertatu zitzaigun parean. Berehala ohartu ginen zerabilten autua interesgarria zela oso. Belarriak zorroztu eta, disimulatzeko, mobiletako pantailetara begira-begira jarri ginen.

- Gogoratzen duzu zelako amets puxkak genituen duela 20 urte? Gure herria askatuko genuela uste genuen, bizimodua beste era batera antolatzeko gauza izango ginela, gure hizkuntza edonon eta edonoiz entzungo zela…

Gure herria askatuko genuela uste genuen, bizimodua beste era batera antolatzeko gauza izango ginela, gure hizkuntza edonon eta edonoiz entzungo zela…

- Basa baino tontoagoak ginen eta ez du balio esatea gazteak ginela, horrelako eldarnioetan murgiltzea guk egin genuen moduan ez da normala.

- Tira, dena ere ez, e? Lartxoan ari zarela esango nuke, zer edo zer lortu dugu. Beitu, adibidez, gure ekimenez jaio zen PREST! aldizkaria.

- PREST!? Benetan zabiltza? Buruko minak kenduta, zer eman digu aldizkari demontre horrek bada?

- Bo, gauza handirik ez baina, adibidez, egun badakigu Deustualdeko 2.650 etxetan euskarazko prentsa idatzia sartzen dela hilean behin.

- Bai, hilean behin aldizkaria etxean, ados, baina horrez gain, zer?

- Badago beste kontu bat: hamazortzi urte hauetan gure bizilagun askoren berri izan dugu eta sarritan oso gauza interesgarriak zituzten kontatzeko.

- Ez dut hori ukatuko, baina euskarazko prentsa zabaltzeaz eta gure arteko elkar ezagutza aberasteaz gain, zer ekarri digu PREST!-ek?

- Pasa den mendean publizitatea euskaraz ikustea ez zen oso ohikoa!

- Egia, egia, baina aitortu: euskarazko prentsa bultzatu, elkar ezagutza sustatu eta publia gure hizkuntzan ateratzeaz gain, zer deabru eman digu PREST!-ek?

- Esango nuke Deustualdeko historia hobeto ezagutarazten eta gure auzoen arteko aldeak txikitzen ere lan polita egin duela.

- Bale, bale, baina, ea ulertzen duzun: euskarazko prentsa bultzatu, elkar ezagutza sustatu, publia gure hizkuntzan atera, Deustualdeko historia hobeto ezagutarazi eta gure auzoen arteko aldeak txikitzeaz gain, ZER DEMONTRE EMAN DIGU PREST-ek??

- Bada, PREST-ek merezi duela beste 200 zenbaki eta atera behar baditugu egingo dugu, ez izan zalantzarik.

Egingo dugu berba 2037an, ados?

Testua
Berbaizu euskara elkartea

berbaizu euskaraelkartea

DEUSTU ALA DEUSTUA?

Deustuk udal izateari utzi zion, laster 100 urte, eta horren ondorioz, bere izena ez da Euskaltzaindiaren arauetan bildu, baina Onomastika batzordeak aspaldian landu zuen izen honen idazkera, Bilboko beste izen batzuekin batera, nahiz eta web orriko bilatzailean ez den ageri.

Orain dela urte batzuk aztertzen galdera argia zen: Deustua ala Deustu? Hau da, amaieran artikulua eraman behar zuen ala ez?

Argi dago bertako eta inguruko euskaldunek 'Deustua' erabili izan dutela XX. mendera arte, deklinatzean azken -a galtzen zen artikula zelako.

Hortaz, Deustuko, Deustutik, Deustura, baina Deustuan.

Baina XX. mendean toponimo askotan ageri den artikuluaren erabilerak astindu gogorra izan zuen eta, artikulurik gabeko aldaerak nagusitu zirela eta, deklinabidea aldatu zen: Deustuko, Deustutik, Deustura, eta Deustun.

Hori ez zen bakarrik gertatu artikuluarekin, Bizkaian jende askok Mungiko, Mungitik Mungin erabiltzen baitu, azken -a artikulua balitz bezala erabiliz.

Gauzak horrela, Onomastika batzordeak uste izan zuen hobe zela Deustu finkatzea eta horrela jakinarazi zion udalari eta Metro Bilbaori, geltokietan ikus daitekeen bezala.

Testua
Mikel Gorrotxategi
euskaltzain urgazlea

Segi Deustualdean euskara sustatuz. Eskerrik asko denoi!

~IZEKI~
TABERNA
BETI IZEKAN SUA
argi bat izeki zen zeruan
su horidun sugarra ostopo
itzalsuen atzean
Ramon & Kajal 26
DEUSTU
IZEKI

DENDA REKIERA
gizonentzako denda
Level 11
Madariaga 10 DEUSTU
level11.es 946 85 53 80

Optica Avenida
Agirre Lehendakaria, 147
SAN INAZIO
Tfnoa: 94 475 11 24

ATXURI TABERNA
Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

BREST
kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

KANPOKOMENDIA ETA INSTALAZIOA
☎ 656 410 475
Alonso Pertsianak
Plaza Celestino Mª del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 94 600 14 24
alonsoper@euskalnet.net

Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4

Toki Berri Taberna
Good vives!
Luzarra,6 - Deustu
@tokiberritaberna

1924tik Deustun
Tintorería La Flor
Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu

artez
euskara zerbitzua
Probatu
herrizki.eus
ANDROID APP Google play
App Store
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
BFA DFB

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net
Matxintxu
aek euskaltegia
Matrikula zaitez!
aek

Nailan
Parquetak - Barnizak
Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo
tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

RONDOKO
HORTZ KLINIKA
Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855
Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia
PADI
OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
☎ 94 475 5932
E.P.S. 425/97

Bitxidenda
Sabin
Erlojudenda
Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

KM PERSIANAS CERRAMIENTOS
Deitu eta Ikusi!!
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK
Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL. persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE
elektrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23

www.renault.es / 902 333 500

RENAULT BILBO BERRI

IBILGAILU BERRI ETA BIGARREN ESKUKOEN SALMENTA
MANTENTZE ZERBITZU AZKARRA • MEKANIKA • KARROZERIA

RENAULT QUALITY MADE · RENAULT WORLD CHAMPION ENGINE

BILBO BERRI JON ARROSPIDE, 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTU. www.bilboberri.com

RENAULT gomendatzen du elf

RENAULT

Prest!

IRAGAR ZAITEZ!

bilbokoaldizkariak@gmail.com
94 447 10 42

YVES ROCHER
FRANCE

Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303

Ramon y Cajal, 24
DEUSTUA

Tfnoa: 94 447 45 00

BORDATXO
JATETXEA

San Pedro plazako
frontoiaren atzean

Deustuko
Ramon y Cajal kalean

girorik onena!

Kalderapeko
euskal kultur gunea

www.kalderapeko.com

txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

Deustualdeko PREST! aldizkariaren 200. zenbakiak eduki berezia eskatzen zuen. Horregatik San Jose egunean, Andrazkoen Aurreskuaren ostean, PREST!-en irakurle,

babesle eta lagunei frontoira hurbiltzeko deia egin genizuen. Erantzun aparta jaso genuen. A zelako sorpresa! Ezusteko itzela!

prest!

Eskerrik asko hurbildu zineten guztioi! Txiki, ertain eta handi! Aldizkariko taldekide ohiei, taldekideei, irakurle eta babesle guztiei eskerrik asko 18 urte hauetan bidelagun

200

izateagatik. Zuei esker du Deustualdeak hedabide propioa. Segi dezagun PREST! egiten eta babesten. Gora PREST!

prest!
18 urte

2001-2019

200 zenbaki

Zenbat gauza aldatu diren 2001n PREST! aldizkaria martxan jarri zenetik, eta ez soilik taldekideen aurpegia. Ene, zenbat aldizkari egin ditugun eta zenbat kamiseta saldu...

kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa

LAURA FEIJO IGLESIA

sortzailea eta bihurria

ANTZERKI ARINA BIZITZA ARINERAKO

Urtarrileko arratsalde hotz batean Granadako kaleetatik paseatzen nengoela, areto txiki baten atean ikusi nuen kartel bategatik jakin nuen zer zen antzerki arina (edo mikro antzerkia): 10-15 minutuko antzezlanak, espazio txikietan antzezten direnak, bata bestearen atzetik, normalean.

Aurkikuntza horrek nire interesa piztu bazuen ere, momentuan sartu ezin izatearen penaz alde egin behar izan nuen, planetak lerrokatu eta P6ko Antzerki Arinen VII. jardunaldiekin topo egin dudan arte.

Ez dakizuenontzako, Pabellón Número 6 (P6 hizkera modernoan), Deustuko Erriberako parketxoan kokatuta dagoen arte eszeniko, dantza eta antzerki laborategia da, hilero gure bizitza geldiezinetatik ateratzen dugun tarteen zain dagoena, horiek gozamenez betetzeko asmoz. Eta lortu egiten du.

Bada, martxoaren 29tik apirilaren 28ra izango dira jardunaldiak aurtengoan, P6ko gune ezberdinetan. Gai eta estilo ezberdinetako 13 antzezlan ikusgai izango ditugu hilabete honetan, gonbidatuak dauden beste 4 ikuskizunekin batera. Guztiek, momentuz zehaztu gabe dagoen emanaldi kopuru berdina izango dute, baina behin baino gehiagotan gozatzeko aukera izango dugu, agenda zaila dugunok ere tartea atera ahal izateko.

Galdu ezin den aukera ederra dugu hile honetan, beraz. Gora antzerkigintza!

Info + pabellon6.org

ELORRI BERTSO ESKOLA

Elorri bertso-eskolako kideak

BAIETZ BESTE 200!

18 urtez jada
albisteen bidelagun
hilero publikatuta
lanean egunez egun
elkartasunez indarra
eskaini diezaiogun
anima gaitezen denok
izateko harpidedun

Kalitatezko eduki
zehatza bezain euskaldun
iritzi, elkarrizketa
berrietan ohi da jardun
nola PREST! zoriontzeko
unea badatorkigun
eskua sutan diogu
'ta baietz beste 200!'

IKUSI ETA IKASI

• FAMILIAN EUSKARAZ GOZATU •

Tailerretan parte hartzeko derrigorrezkoa da aurretik izena ematea **www.ikusietaikasi.eus** gunean aurkituko duzuen izen-emate fitxa betez.

IZEN EMATE EPEA: URTARRILAREN 14TIK 27RA.

euskaltzaleen topagunea

Bilbao

2019ko
OTSAILA MARTXOA APIRILA MAIATZA

www.bilbaoeuskaraz.eus

Deustualdeko

KORRIKA AGENDA

Klika

Apirila

4 Osteguna

20:00 Gazte Lokala
Antzerkia.
"Morbus Operandi"

5 Ostirala

20:00 Done Petri Plaza
Korrika Gira/Biran
(Jaia, peto salmenta)

10 Asteazkena

10:00 San Inazio
Apainketa

18:00 Deustu
Apainketa

20:00 Bidarte Udaltegia
Irakurleen txokoa:
"Amek ez dute"

11 Osteguna

15:45
Badator Klika

20:00 Bidarte Udaltegia
Vertsus. Bertso
Dinamikaren
Aurkezpena

Korrika Txikiak

Apirilak 9	Deustu
Apirilak 10	San Inazio
Apirilak 12	Arangoiti

DEUSTUALDEKO KORRIKA BATZORDEA

aek · Elorri · Deustuko Jai Batzordea · Deustuko Herriko Taberna · Defenda Dezagun! · berbaizu euskaraelkartea · Deustuko Gazte Asanblada · Erroondoko

---

"Blogak testutik harago"

JARDUNALDIA

APIRILAK 4

eta ondoren...

SARI-BANAKETA EKITALDIA

blogetan! BLOG IZARREN BILA

DOAN

EMAN IZENA:
www.blogetan.eus

ORDUA:
15:30 - 19:00

LEKUA:
Euskararen
Etxea (Bilbo)

Agoitz plaza 1
Metroa: San Inazio geltokia
(Lekeitio irteera)

Sarrera eta dinamizazioa: Ioar Oteiza (komunikazioan aditua)

Dena ez da testua
- Tania Arriaga (EHU/UPVko irakaslea): podcast.
- Esti Beraza Sorarrain eta Aare Castilla (TaZebaEz Kolektiboko kideak): Visual Thinking.

Lizentzia libreak
- Gorka Bereziartua (Argia-ko kazetaria): Creative Commons.

Berrikuntza betikoa oinarri hartuta
- Hedoi Etxarte (Katakrak-eko kidea): webgunea, eztabaidagunea.
- Imanol Epelde (Blogaria eta irakaslea): bideo-blogak.

ANTOLATZAILEA: AZKUE Fundazioa

LAGUNTZAILEA: ARGIA